

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

NAVARIDASKO UDALA

Behin betiko onestea ibilgailuentzako ibiak arautzen dituen udal ordenantza

Behin Udalbatzak hasierako onespena emanik, 2018ko uztailaren 26an egindako bilkuran, ibilgailuentzako ibiak arautzen dituen udal ordenantzari, eta behin jendaurrean jarririk, ALHAO-ren 80. zenbakian (2018ko uztailaren 11koa) eta Udalaren iragarki oholean iragarkia argitaratuz, jepe horretan erreklamaziorik egin ez denez, behin betiko onetsita geratzen da, eta hala jakinarazten 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituen), ordenantza horren testua osorik argitaratuta.

Erabaki eta ordenantza horien aurka interesdunek administrazioarekiko auzi errekurtoa jarri ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, 29/1998 Legeak (uztailaren 13koa, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena), 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

NAVARIDASKO UDALAREN ORDENANTZA, IBILGAILUENTZAKO IBIK ARAUTZEN DITUENA

1. artikulua. Xedea

Udal ordenantza honen xedea da Navaridasko udalerrian ibilgailuentzako ibiak arautzea. Beharrezkoa izango da lizentzia eskuratzea erabilera pribatuko ibilgailuak espaloietan edo oinezkoentzako espazio publikoetan zehar igarotzeko edozein eratan. Orobat eraikinetan ibilgailuak sartu eta irteteko ateen aurrean espazioa gordetzeko, ibilgailuak libreki sartu eta irten daitezen.

2. artikulua. Arau orokorrak

A) Beheko solairua darabilen edozein erabiltzailek eskatu ahal izango du beheko solairu horretarako ibilgailuentzako ibi bat, inolako mugarik gabe modalitateetan eta ordutegietan, salbu eta ordenantza honetan lizentzia hori emateko ezarritako arauak.

B) ibilgailuentzako ibietarako baimena eskuraturik, debekatuta egongo da lokalaren sarreran aparkatzea; kasu bakarrean izango da zilegi: gidaria ibilgailuaren barnean badago eta beharrezkoa denean kentzen badu.

C) Seinale horizontalak edo bertikalak egonez gero leku edo bide jakin batzuetan aparkatzea edo geratzea galarazten dutenak, berdín eskuratu beharko da baimena, nahitaezkoa izango da.

3. . artikulua. Eskabidea egiteko sistemak

Alta eskabidea idatziz egin beharko zaio Navaridasko Udaleko alkate-presidenteari, eta honako agiri hauek aurkeztu beharko zaizkio:

A) Eskatzailearen NANaren fotokopia eta finken edo lokalen jabe edo errentari delako egiaztagiria.

B) Dokumentazio grafikoa, honako hauek agertuz zehaztasunez:

— Lokala kokatuta dagoeneko planoa, erakusten duena non dagoen zehazki kokatuta hura eta nondik duen sarbidea; halaber deskribatu beharko du zuhaitzik baden edo ez, hiri altzaririk baden edo ez edo espaloiairen gainean eragozpenik baden edo ez (eta espaloia non dagoen eta zintarriak non dituen, halakorik izanez gero).

— Oinplanoa dagozkion kotekin, lokalaren azalerak zehaztuz, eta solairuko zenbat plaza dauden marrazki bidez adieraziz.

B) Ibilgailuak edukitzeko edo gordetzeko lokaletarako eskabideetan, agertu beharko da zenbat ibilgailu har ditzakeen lokalak gehienez, eta zenbat ibilgailuk erabili ohi duten/dituzten.

C) Eskatzaileak ez badira ordenantza honetan aipatzen diren erabileretarako lokalen jabe, jabearen adostasuna ere aurkeztu beharko dute, eta adierazi ezen beren gain hartzen dutela erantzukizun subsidiarioa ordenantza honetan ezarritako betebeharretan.

D) Eskatzaileak, halaber, adierazi beharko du zer lizentzia mota eskuratu nahi duen, eta lizentziaren onuradun izango diren ibilgailuen matrikulak ere erantsiko ditu.

Era berean, bere erantzukizuna izango da baimenaren xede den lokala ibilgailuak gordetzeko beste ezertarako ez erabiltzea, eta bere gain hartuko du ordenantza honetan ezarritako arau guzti-guztiak betetzeko betebeharra.

4. artikulua. Baldintza orokorrak

Beren-beregi galarazten da:

A) Edozein ibilgailu lokaletatik irten edo lokaletara sartzeko modua errazteko sistematik ezartzea espaloian edo erabilera publikoko espazioetan, finkoak nahiz mugikorak. Ibilgailuentzako ibietako zintarriak baizik ez dira beharatuko, udalak ezarritako baldintzekin.

B) Edozein eratako errotulu, seinale edo iradokizun ezartzea, ibi lizentziaren nahitaezko seinaleaz bestekoa, hura ordeztzeko, edo gainerako erabiltzaileak nahasteko bidea emanez.

C) Edozein objektu edo edozein eratako ibilgailua ezartzea, erabiltzeko moduan ez dagoena, lokalen aurrean, espazioa gordetzeko. Agintaritza eskudunak bere esku izango du egitate hori ikuskatzea, eta kasu bakoitzean dagokion erabakia hartu eta betearaziko du, lizentziaren xede den lokalaren ugazaba izendatuz espedientearen sortutako gastuen erantzule subsidiario, baldin eta halakorik bada.

Era, berean, gerta liteke zehapen espedienteak izapidetzea dagokion baimen aginduzkoa gabe bidegabeki baliatzeagatik eskubideak, edo bide segurtasuneko legea edo zirkulazio erregelamendu orokorra hausteagatik.

5. artikulua. Zerga egitatea

Zerga egitatea izango da erabilera pribatuko ibilgailuentzako edozein pasabide egitea espaloietan zehar edo oinezkoentzako espazio publikoetan zehar. Orobat eraikinetan ibilgailuak sartu eta irteteko ateen aurrean espazioa gordetzea, ibilgailuak libreki sartu eta irten daitezen.

6. artikulua. Subjektu pasiboa

Subjektu pasibo izango dira ibi lizentziaren onuradun diren pertsonak edo entitateak.

7. artikulua. Zenbatekoa

Ordenantza honetan arautzen den tasaren zenbatekoa 100 euro urteko izango da ibi baimen bakoitzeko.

8. artikulua. Ibi lizentziaren baldintzak

a) Oro har, lokal edo gune bakoitzerako lizentzia bakarra emango da, eta adituko da unitate fisiko bakarra dela fabrika horma iraunkorrez beste azalera batetik erabat bereizi gabe dagoen azalera oro.

b) Ibi lizentzia eskuratzeko eskaerak aztertuko dira zenbait kaletan lizentziak nabarmenki ugari direnean edo oinezkoen joan-etorrirako edo ibilgailuen zirkulaziorako arazo nabarmena direnean; kasu horietan, eskumena duen organoak egoki deritzen ebazpenak emango ditu.

c) Interes publikoaren onerako, lokalak bata bestetik gertu daudenean, eta bereziki ugazaba batenak direnean, ahal dela ez da emango lokal bakoitzeko lizentzia bana, lizentzia bakarrean bil badaitezke edo guztiek batera erabil badezakete.

d) Lizentzia urtebeterako emango da, eta urtebeteko epeetarako luzatu ahalko da, salbu eta lizentziaren jabeak bere borondatez baja eskatzen badu edo udalak lizentzia berritzea erabakitzen badu; udalak lizentzia berritzea erabakitzen badu, urte naturala amaitu baino hiru hilabete lehenago erabaki beharko du.

9. artikulua. Seinaleak

Disko bat eta plaka osagarri bat izango dira, eta sarbidearen erdian ezarri beharko dira, erregelamenduz ezarritako garaieran.

A) Seinalea Udalak emango du, horretarako ezarritako tasak ordainduta, eta horretarako izendatutako teknikariek egiaztatu beharko dute ea baldintza guztiak ezarritakoaren arabera bete ote diren.

Lizentziaren titularraren erantzukizuna izango da seinalea behar bezala ezartzea, zaintzea, mantentze lanak egitea eta, ibi lizentzian baja eskatzen badu edo hura ezeztatzen bazaio, hura itzultzea.

Titularrak ezingo ditu aldatu seinalea eta haren edukia, inola ere ez, eta haren gain izango dira, ezpabere, erantzukizunak.

Seinalea kendu edo hondatuz gero, eta besterik gertatuz gero titularraren konpromisoaz landara, berehala jakinarazi beharko zaio udal honi.

B) Seinaleen deskribapena:

Disko mota Udalak araututakoa izango da, hark ezarritako kolore eta neurriekikoa, eta lizentzia bakoitzaren kontrol zenbakia eramango du.

Disko horrekin batera joan beharko da, ezinbestean, lizentzia berritu zen azken urtearen adierazpena; ez dute inolako indarrik izango uneko urtearen panel osagarri hori (edo aurreko urtearena, urtarrila eta otsaila bada) ez daramaten lizentzia diskoek.

10. artikulua. Ibien ezaugarriak

Ibi lizentzia iraunkorra izango da. Arau guztiak betez beren barnean gutxienez turismo motako ibilgailu bat (1) eduki ohi dutela egiaztatzen duten lokal guztiei emango zaie lizentzia. Orduetgia iraunkorra izango da, egunean 24 ordukoa.

Horretarako, egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte, kontzesioa ohikotasunez erabiliko duen ibilgailuaren matrikularekin batera.

1. artikulua. Sarbideak

Lizentziaren titularren edo erabiltzaileen erantzukizuna da lokaletarako sarbideak egokitzea. Horretarako, beharatu egin beharko dituzte espaloietako zintarriak, udalak ezarritako eran, eta 20 egun izango dituzte horretarako, lizentzia ematen denetik aurrera; ezinbesteko baldintza izango da ondoren plazak esleitzeko, udal teknikariek ikuskatuta.

Era berean, zintarria berregokitzeko lanak egin beharko dituzte, beren borondatez lizentzian baja eskatzen dutenean edo lizentzia ezeztatzen zaienean, eta sarbideak lizentzia eman aurretik zeuden bezala utzi beharko dituzte. Osterantzean, Udalak bere esku izango du dagozkion diziplina neurriak ezartzea.

12. . artikulua. Ibiaren neurriak

Ibietako sarbideak gutxienez 2,50 m zabal izango dira, eta gehienez ere 3,5 m. Tarte horiek handitu edo txikitzeak aukera izango da, Udalak dagokion azterlana egin ostean, behar bezala justifikatuz gero hala behar dela, ibilgailuek biraketa erradioa egin ahal izan dezaten sartzerakoan. Neurri horiek udal zerbitzu teknikoaren txostenean egongo dira ezarrita, zeina ibi lizentzia eman aurretik eman behar baita.

13. . artikulua. Obrak

Espalioen baldintzak ez badira egokiak ibilgailuak igarotzeko, edo beharrezkoa bada espaloiak sendotzea, lizentzia eskatzailearen kontura izango dira horretarako gastuak. Era berean, espazio publikoan kalterik edo narriatzerik izanez gero, titularraren edo erabiltzailearen kontu izango dira.

14. artikulua. Lizentzia iraungitzea

Lizentzia iraungiarazteko eskumena tokiko gobernu batzarrarena izango da, dagokien udal zerbitzuek alde aurretik egin beharreko txostenak egin ostean.

Hona nola gerta daitekeen lizentzia iraungitzea:

- a) Titularrak lizentziari uko eginez. Titularrak, ostera, lehen zegoen moduan utzi beharko du espaloia, eta itzuli egin beharko ditu lizentzia egiaztatzen duten plakak.
- b) Udalak ezeztaturik, interes publikoarengatik. Horretarako, Udalak dagokion espedientea izapidetuko du, interesdunari entzunaldia emanez.
- c) Udalak ezeztaturik, lizentzian adostutakoa ez betetzeagatik, edo dagozkion tasak ez ordaintzeagatik, edo lizentzia emateko kontuan hartu ziren inguruabarrak desagertzeagatik, edo beste arrazoi batzuk agertzeagatik, zeintzuk, lehen egon izan balira, lizentzia hasieratik ukatzea eragingo baitzuket.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko da eragina izaten.

Navaridas, 2018ko abuztuaren 23a

Alkatea

MIGUEL ÁNGEL FERNÁNDEZ GONZÁLEZ